



Ermuko rock taldea «Saizulo»

Ermuko gazteriak gogor jotzen du musika dela eta ez dela. Aurreko alean «Julio Cageta» taldearekin hizketan izan baginen, oraingoan Ermuko rock talde berri bat dakargu: «Saizulo»



Noiz sortu zen taldea?

Gutxi gora behera dela urte bete' erdi, asperturik geundela kitarra batzuekin zaratara pixka bat ateratzen hasi ginen. Jarraian pare bat abesti atera genuen eta talde bat egiteko gogoia sartu zitzaigun.

Nola asmatu zenuten Saizulo izena?

Hasieran makina bat izen izan genuen, adibidez kaka zaharra, borroka, pomada, baina hauetatik ez zitzaigun bat ere atsegin, beraz, beste bat bilatu nahian ibili ginen, denbora luze batez izenik gabe egon ondoren hiztegiaren begiratzea erabaki genuen, orduan «Saizulo» hitza ikusi eta asko gustatu zitzaigun. Saizulo hitzak, goi mailan kokatzen diren sai madarikatuak, gogoerazi zizkigun, eta hoiene omezez, txarrez bada ere, jarri genion taldeari izen hori.

Musikari dagokionez nola definitzen zarete?

Hasteko, guk ez ditugu «etiketak» atsegin, eta gure ustez taldeek ez lukete etiketarik eduki behar, zeren eta talde batzuk hila beretik joan arren ez dira berdinak, beraz ezin dira berdin «etiketatuz». Gure musikari buruz esan dezakeguna, zera da: zaratatsu xamarra eta martxa handikoa dela batez ere zuzenean geudelarik (Frontoman-ei esker). Guk gustokoa dugu eta momentu atseginak igarotzen ditugu.

Zergaitik euskaraz?

Nahi dugulako.

Zuen taldearen ezaugarriak kontutan harturik, ez zenukete aukera gehiago izango Euskal Herriko beste edozein herritakoak izanda?

Ez dakigu, seguru asko bai, Ermuan musika egiten duten taldeak ugariak badira ere, jende gazte asko dagoelako, eta udalak egiten duen gauza bakarra, heuren interesak bilatzeko noizean behin planta egiten da, taldeen artean konpetentzia sortarazten gainera.

Arazoak beste taldeenak bezalakoak badira, zer egin daiteke denon artean egoera hori konpontzeko?

Ia, talde guztien arazoak berdinak izaten dira, lokalak, materiala, jotzeko aukerak, etabar... Horretarako talde guztien artean udala presionatu beharko genuke, lokalak alokatzerakoan errezitasunak edo subentzioak lortzeko konpetitibitatea besterik ez duten bultzatzen konkur-



tsoen ordeaz jaialdi gehiago antolatzeko, Santxauetan herriko taldeekin kontzertuak egiteko, etabar...

Hiru arrazoi musika jotzeko

Rocka, borroka, denborapasa

Non gustatuko litzaizuke jotzea?

Saisulo batean

Inspirazio iturriak

Aspertzea, Ernesto Che Guevara, Urko puntako ardien kaka

Pentsatu duzue inoiz gaztelaniaz kantatzea?

Ez

Euskal Herriko talde musikala?

Hertzainak, Zarama, La polla records...

Kanpoko talde musikala?

AC/DC

Ermuko txoko bat?

Tren geltokia

Zer gustatuko litzaizuke egitea?

Musikari esker oso ondo bizitzea

Zeren bildur zarete?

Aspertzearen beldur gara

ARRIETA

CORDEVI

Elektratresnak, telebistak, bideoak, musika aparatoak..

prezio eta kalitate ezin hobean.

VI. centenario Kalea, 5, ERMUA